



2017

Amezketako Haur, Nerabe eta Gazteen Parte Hartze Zerbitzua.

2016/2017 ikasturteko ebaluazioa





1.- HAUR, NERABEEN ETA GAZTE ATALEN BALORAZIOA:

HAURREN ATALA:

4-11 urte bitartean

Helburuak:

1.- Haurren atala garatu

- Haurren beharren inguruan hausnarketa egin
- PSZko haurrentzako eskaintza osagarria definitu

2.- Herri mailan haurrentzako eskaintza egonkortu eta haurrak komunitateko ekintzetan parte hartu dezatela

- Gabonetako eskaintza berezia
- Aste Santuko eskaintza berezia
- Udaleku irekiak

Deskribapena:

Aurreko urteetan haurren atala zabaldu eta ikasturtean zehar eskaintza jarrai bat ezartzeko proposamenak egin dira, baina udalak ez du horren aldeko apusturik egin, beraz, orain arteko eskaintza egonkortu eta honen kalitatea hobetzean jarri dira indarrak. Honez gain, herrian atera diren ideia berriak ere egin dira, eta 15-18 urte bitarteko nerabeen eta haurren arteko harremana landu da.

Egindakoa:

Haurrentzat urtean zehar eskaintza jarrai bat ez dagoen arren, urteko une jakin batzuentzat ekintza bereziak izaten dute. Eskaintza hau hurrengo ekintzetan banatu da aurten:

1. San Martin egunean jolasak

Amezketako aste kulturalaren barruan, San Martin egunean haurrekin jolasak egin ziren. Egun horretan guraso elkarteak bazkaria jartzen du haurrentzat eta PSZ zerbitzuak arratsaldean jolasak egin zituen. Egun horretan haurren parte hartzea handia izaten da, guraso elkarteak antolatutako bazkarira haur asko joaten direlako, eta bazkaritik segidan etortzen direlako jolasetara.

2. Gabonetan eskaintza berezia

Gabonetan ekintza ezberdinak eskaini zitzaizkien haurrei, honetarako, hezitzailearen lan ordu kopurua igo zelarik. Gabonetako eskaintza bereziari buruzko informazio gehiago "2016ko Iraila-Abendua" memorian dago.



3. Korrika txikiaren ondorengo merienda

Azken urteetan Korrika Amezetatik pasa ez zela kontuan hartuta, eta aurten pasako zenez, herria asko inplikatu zen gertaera honetan, eta PSZtik haurrei merienda eskaini zitzaizen korrika txikiaren ondoren.

4. Aste Santuko eskaintza berezia

Gabonetako eskaintzan egin zen bezala, ekintza ezberdinak eskaini zitzaizkien haurrei. Kasu honetan ez ziren hezitzailearen lan orduak igo. Zerbitzu honi buruzko informazio gehiago "2017ko Urtarrila-Apirila" memorian dago.

5. Zumadi eskolako ikasturte amaierako festa

Ikasturte amaieran Zumadi eskolak eta guraso elkarteak festa bat antolatzen du eskolan bertan. Goizean Zumadi eskolan prestatutako emanaldiak egiten dituzte haurrek, gero guraso elkarteak bazkaria ematen die, eta arratsaldean PSZtik jolasak egin ziren.

6. Udalekuak

Udaleku prozesua abian jartzeko, haurrek izen emateko epea eta begiraleek izena emateko epea ireki ziren. Epe hau maiatzaren 8tik maiatzaren 23ra bitartekoa izan zen eta honako datuak atera dira:

	HAURRAK	BEGIRALEAK
APUNTATUTAKOAK	55	18
HAUTATUTAKOAK	55	7

Hautatu beharreko begirale kopurua zehazterako orduan hurrengo ratioak jarraitu ziren:

ADIN TARTEA	RATIOA (Haur/begirale)	HAUR KOPURUA	BEGIRALE KOPURUA
2-3 URTE	6/1	5	1
4-8 URTE	9/1	26	3
9-12 URTE	10/1	25	3

Begiraleak hautatzerako orduan berriz hurrengo irizpideak jarraitu ziren:

Amezketarra izatea.	3
Begirale tituloaren zati praktiko eta teorikoa izatea.	3
Amezketako udaleku irekietan eskarmentua.	3



Udaleku itxi eta irekietako esperientzia.	2
Haurren heziketaren inguruko ikasketak bukatuak izatea. (haur hezkuntza, magisteritza, gizarte hezkuntza, pedagogía...)	2
Haurren heziketaren inguruko ikasketak burutzen aritzea.	1
EGA titulua.	2

Behin begiraleen hautaketa eginda, begirale bilera egin zen ekainaren 9an, eta bertan, begirale txostena aztertu zen urteroko aspektu garrantzitsuenak erreparatzeko eta hilabete guztirako programazioa prestatu zen:

2-3 URTE		
ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTIRALA
4 Ezagutza jolasak	5 San ferminetako abestia ikasi	7 San fermin eguna
11 Beheko parkera/Pelikula	12 Eskulanak	14 Uraren eguna
18 Beheko parkera/ pelikula/ paraxuta	19 Ipuina eta marrazkiak	21 Sukaldaritza
25	26 Eskulanak	28 Azken eguneko festa

4-5 URTE, LH1-LH2		
ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTIRALA
4 EZAGUTZA JOLASAK + PARAXUTA+ SUKALDARITZA	5 SAN FERMINETAKO PRESTAKETA	7 SAN FERMIN
11 ALTXORRAREN BILA	12 BEGIRALEEN BILA	14 URAREN EGUNA
18 SAN MARTINERA IRTEERA	19 URTAROEEN EGUNA+TRUEKEA	21 OKA+ AURPEGIAK MARGOTZEA
25	26 MITOLOGIA	28 AZKEN EGUNEKO FESTA



LH3, LH4, LH5, LH6		
ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTIRALA
4 EZAGUTZA JOLASAK +PARAXUTA+ JOLAS LIBREAK	5 SAN FERMINETARAKO PRESTAKUNTZA + JOLASAK	7 SAN FERMIN
11 SAN MARTINERA IRTEERA	12 BEGIRALEEN BILA	14 URAREN EGUNA
18 TRUEKEA ETA OKA	19 TOLOSAKO IGERILEKURA	21 SUKALDARITZA
25	26 ALTXORRAREN BILA	28 AZKEN EGUNEKO FESTA

Behin programazioa prestatuta, guraso bilera egin zen ekainaren 16an. Bilera honetan guraso batzuek aipatu zuten 3 eta 4 urteko haurrak batera egoten direla gelan eskolan, eta udalekuetan ere batera egotea gustatuko litzaiekeela. Guraso guztiekin aztertu zen aukera hau eta aho batez onartu zen aldaketa.

Aipatzekoa da aurten kontratatu diren 7 begiraleez gain koordinatzaile bat kontratatu dela udalekuetarako. Koordinatzaile honen funtzioa udalekuetan zentratu eta bertako begirale, haur eta gurasoen beharrak asetzea eta udalekuen funtzionamendu orokor egokia bermatzea izan da (oharrak prestatu, materialak erosi, begiraleei lagundu...).

Haurrek eta gurasoekin zer diote?

Hiru balorazio pasa zaizkie hurrei zein beraien gurasoei urtean zehar: gabonetako eskaintzaren ondoren, aste santuko eskaintzaren ondoren eta udalekuen ondoren. Gabonetako eta aste santuko balorazioak oso onak izan ziren, bai haurren partetik eta baita gurasoen partetik ere. Aipatzekoa da gabonetako eskaintzan haur hezkuntzako haurren parte hartze baxua ikusirik aste santuan hauen eskaintza murriztu zela, eta gero aste santuko balorazioan hainbat gurasok haur hezkuntzako eskaintza zabaltzea eskatu zuten. Hurrengo urtean guraso elkartearekin aspektu hau lantzea proposatzen da, haur hezkuntzako haurren benetako beharrak ondo ezagutu eta eskaintza egokitzeko.

Aste santuko zein Gabonetako balorazioen zehaztasun gehiago “2016ko Iraila-Abendua” eta “2017ko Urtarrila-Apirila” memorietan daude.

Jarraian, udalekuetan jaso diren balorazioak zehazten dira, 41 galdetegi jaso dira bueltan eta hauek izan dira emaitzak:



	BAI	EZ DAKIT	EZ
Guraso bileran emandako informazioa nahikoa izan da	31	8	2
Udalekuen garapena egokia izan da	37	4	0
Ekintzak haurraren adinera egokitutakoak izan dira	37	4	0
Ekintzak orokorrean ondo egon dira	38	3	0
Haurra udalekuetan gustura aritu da	41	0	0
Udalekuak 3 egunetan eskaintzea nahikoa dela iruditzen zaizu	32	0	8
Udalekuak eskaintzeko ordutegia egokia izan da	38	0	3

Honez gain, hurrengo iritzi edo proposamenak ere jaso dira balorazioetan:

“Guraso bezala gure helburua haurrak lagun artean tarte atsegin bat pasatzea da eta ondo beteta geratu da helburua. Oso ondo pasatu du eta poz pozik joan da egunero. ESKERRIK ASKO!!”

“Udalekuen eskaintza egunero izatea”

“Tolosako igerilekura irteera motz xamarra”

“Urtero bezala, udalekuak 5 egunetan eskaini beharko liratekeela iruditzen zait, eta hala eskatzen diot Amezketa udalari”.

“Lanean ari garenok eguneroko zerbitzu bat behar dugu haurrak ondo pasaz etxetik kanpo aktibitatea izan dezan... ulertzen dut gehiengoak ez behar izatea 5 eguneko ludoteka, baina behar dugunontzat aukera izatea garrantzitsua iruditzen zait. Noski, garestiagoa izango litzatekeela, baina aukera egon behar luke”.

“Udaleku zerbitzua egunero eskaintzea garrantzitsua iruditzen zait. Kupo minimoa, baldintza ekonomikoak... argi utzi eta aukera izatea 5 egunetan hurrentzat ludoteka zerbitzua izatea.”

“Asteko egun guztietara luzatzeko proposamena luzatzen dizuet (urtero legez). Harrigarria da umeek ludotekan egindako ekintzen bidez “ikasi” duten guztia, zuek antolatutako jolasetan arreta berezia jartzen dute, miresgarria. (ZORIONAK!)”

“Urtero bezala nire proposamena eskaintze asteko egun guztietara luzatzea da eta ekaineko azkeneko astean ere jarriko balute askoz hobea. Bestalde, esan umeak txorutzen joaten direla ludotekara, gustora dabilzan seinale, segi horrela!! Zorionak dinamizatzailer, begirale eta antolakuntzan zabilzaten guztioi!! Mila esker.”



“Bilera egunean zerrendatutako ekintza horiek guztiak ez dakigu bere horretan bete diren. Egunaren amaieran, haurrak jasotzerako orduan informazio gutxi jaso dugu. Haurra gustura ibili dela nabarmendu behar dugu. Udalekuen ordutegiari dagokionez, 9:30etan hasiz gero hobeto, amaiera ordua mantenduz, 13:00.”

“Nire alaba oso gustura ibili da. Egindako ekintzak oso gustukoak izan ditu. Zaintzailea ere gogokoa tokatu zaio. Eskerrikasko!”

“Jarraitu horrela”

Begiraleek ere beraien balorazioak egin dituzte haurren egunerokotasuna eta hauekin ostiraletan egun dituzten balorazioak aztertu ondoren:

	Bai	Erdizka	Ez
Amezketan herrian, udan haurren aisialdirako eskaintza hezitzailea izan da	8	0	0
Haurren parte hartzea eta autonomia sustatu da	7	1	0
Haurrek beren ingurunea gehiago ezagutua eta eragile aktiboak izan dira	7	1	0
Haurrek, beraien etapaz gozatu dute, aisialdi hezitzaile baten bitartez	8	0	0
Haurrak adinaren arabera taldeetan banatu dira, nahiz eta bakoitzak beraien begirale propioa izan duen, adin tarte batzuk jarduerak eta programazioa batera garatu dituzte. Ondo joan da esperientzia?	8	0	0
Irteereri erreferentzia eginez, ebaluatu nahikoak izan diren, adin-tarteari egokituak eta eskaintza emateko dugun ordu kopuruari dagokionez			
San Martin HH5-LH6	6	0	0
Tolosako igerilekura LH3-LH6	1	2	0
Taldeko dinamikak nahikoak eta egokiak izan dira			
San Fermin	6	0	0
Uraren eguna	5	1	1
Begiraleen bila	5	2	0
Azken eguneko festa	7	0	0
Haurren ebaluazio eta iritzia positiboa izan da	7	0	0

Hurrengo urtera begira ere hainbat proposamen egin dituzte begiraleek:

“Aurten igerilekuan goiza segituan pasa zitzaigun. Agian piska bat luzatu beharko litzateke ordutegia” (LH3-LH6)



“Nik uste orokorrean dena ongi antolatuta zegoela. Kontuan hartzeko pare bat gauza: herri kirolak egitea asko gustatu zitzairen, altxorraren bila jokuari dagokionez aldiz, ez ziren oso motibatuta ibili.” (LH3-LH6)

“Begiraleen bila haur txikienek ez zuten horren ondo pasa, baina hala ere, ekintza egokia iruditzen zait datozen urteei begira.” (HH2-HH4)

“Oso positiboa izan da haurren balorazioa. Momentu batzuetan haur batzuk beste haurren jarreraz kexatu dira” (HH5-LH2)

“Hurrengo urtean mitologiaren eguna errepikatzea, istorio berri bat asmatuz.” (HH5-LH2)

“Txikienekin zaila de besteak adina parte hartzea, baina bestela arazorik ez.” (HH2-HH4)

“Haurren iritzia orokorrean ona izan da nahiz eta haur batzuk besteen jarreraz kexatu diren.” (HH5-LH2)

“Hurrengo urtean uraren eguna eta mitologia errepikatzea, oso ondo pasa dute eta.” (HH5-LH2)

“Hurrengo urtean denbora gehiago pasatzea igerilekuan” (LH3-LH6)

“Begiraleen bila oso azkar aurkitu gintuzten, agian hurrengo urterako beste zerbait pentsatu beharko da.” (LH3-LH6)

“Orokorrean haurren balorazioa oso positiboa izan da, nahiz eta batzuetan batzuen jarrera ez oso ona izan. Jokuen eta taldeen inguruan kexa asko izan dira, batzuetan jarrera negatiboegia” (LH3-LH6)

“Orokorrean udalekuen planteamendua oso ondo dago. Igerilekura irteera eta herri kirolak izan dira gustukoena. Altxorraren bila adibidez aurten ez zaie asko gustatu.” (LH3-LH6)

“Mitologia asko gustatu zaie, errepikatzeke modukoa. Trukean parte hartzea ez da aktiboa izan” (HH5-LH2)

Balorazioa:

2016/2017 ikasturterako jarritako helburuak	Balorazioa
Eskaintza berezietan (aste santuak eta gabonak) hezitzailearen ordu kopurua igo edota beste begirale bat kontratatu haurren adin bereizketa bermatzeko.	Gabonetako eskaintzan hezitzailearen ordu kopurua igo zen.



Orokorrean, nesken parte hartzea bultzatzeko ekintzak burutu.	Gaztelekuko parte hartzaile diren nerabe berriekin egonkortu da neska eta mutilen arteko oreka.
Haur hezkuntzako haurren parte-hartzea igotzeko estrategiak garatu.	Haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako haurrei eskaintza bereiztua eskaini zitzaion. Erabaki hau hartu zen aurreko ikasturtean haur hezkuntzako haur batzuen gurasoek eskatu zutelako haur hezkuntzako eskaintza zabaltzea, baina aurtengo gabonetako eskaintzan parte hartzea oso baxua izan da haur hezkuntzako haurren kasuan, beraz, ondorioztatu da dagoeneko ez dagoela lehen zegoen eskaririk haur hezkuntzako eskaintzaren zabalkuntzaren inguruan.
Guraso elkartearekin harremana sendotu, gurasoen beharrak hobeto ezagutzeko.	Guraso elkartearen batzordea aldatu da aurten, eta udaleko gazteria zinegotzia izan da batzorde berrian sartutako kideetako bat. Honek guraso elkartea eta PSZren arteko harremana erraztea ekarri du eta ikasturte amaieran bilera bat egin zen guraso elkartearekin. Bileran honetan erabaki zen hurrengo ikasturtean lankidetzaren handitzea eta irailean beste bilera bat egingo da urtean zehar egingo diren bilerak zehazteko.
Kurtso amaierako festan ekintzetan parte hartzen ez duten haurren arduraren norena den argitu (haurren bazkariaren ondoren gurasoek bazkaltzen dute, PSZko kideak jolasetan parte hartzen duten haurrekin gaude).	Guraso elkartearekin egin zen bileran zehaztu zen jolasetan parte hartzen ez zuten haurren gurasoen ardurapean gelditzen zirela.
Udalekuak asteko 5 egunetan eskaintzeko	Galdetegia pasa zaie herriko familiei



aukera aztertu.	eskolaren bitartez eta udalekuak 5 egunetan izatea eskatzen duten familia kopurua txikia dela ondorioztatu da.
Haur etorkinenganako jarrera txarrei dagokienez, udaletxeko gizarte langilearekin lankidetzan bultzatu gai honen inguruko estrategia berdina aurrera eramateko	Gizarte langilearekin bilera bat egiteko asmoa zegoen arren, bilera hau ez da egin.

DATORREN URTEAN...

Aurten udalak haurren eskaintza ez zabaltzea erabaki duenez, eta nerabe/gazteekin berriz eskaintza zabaltzeko une egokia izan daitekeela ikusten denez, indarrak nerabe/gazteen eskaintza zabalatzearan jarriko dira, eta haurren eskaintza azken urteetan bezala mantenduko da. Hurrengo ikasturterako aurreikusten den aldaketa nabarmena herrian eskainiko den begirale ikastaroko kideek beraien ezagutza teorikoak praktikan jartzeko ekintzak egingo dituztela da, eta beraz, haurrek ekintza gehiago izango dituzte urtean zehar, nahiz eta ekintza hauek oraindik zehazteko dauden.

2016/2017 IKASTURTERAKO PROPOSAMENA : HAURREN ATALA

- San Martin egunean jolasak egin.
- Gabonetan eskaintza berezia egin.
- Aste Santuetan eskaintza berezia egin.
- Zumadi eskolako ikasturte amaierako festan jardueraren bat egin.
- Udalekuak antolatu.
- Begirale ikastaroan egingo dituzten ekintzak modu egokian bideratu.
- Haur hezkuntza/Lehen Hezkuntzako haurren beharrak zein diren eguneratu.

**NERABEEN ATALA:**

12-14 urte bitartean

15-18 urte bitartean

Helburuak:**1. Nerabeei nerabezaroz gozatzeko aukera egonkorra eta etengabea ematea**

- Gaztelekua Amezetako nerabeen topagune bihurtu.
- Suspertzailea nerabeentzako erreferente batean bihurtu

2. Nerabeengan autonomia eta erantzukizuna landu.

- Gaztelekua, zein bertako materiala denen artean elkarbanatzea
- Gaztelekuko ekintzen erantzule egitea nerabeak.

3. Konpromiso eta jarrera kritikoa bultzatu nerabeengan

- Partaidetza kolektiborako sentimendua garatu gaztelekuan
- Nerabeei beraien aniztasunean laguntzea , euren gizarte parte hartzeko modu ezberdinak onartuz
- Beraien arteko erlazio eraikitzaileak garatzea

4. Herri mailako ekimenetan inplikatzeko gaitasuna garatu

- Nerabeek herriko ekimenetan parte hartzea

Deskribapena:

Aurreko ikasturtean hezitzailea eta nerabeen artean izan ziren desadostasunak eta honen ondorioz nerabeek gaztelekuan parte hartzeari uztearen ondorioz, ikasturte honetarako ezarri ziren helburuak 12-15 urte bitarteko nerabeetan finkatu ziren, 15-18 urte bitarteko nerabeak gaztelekura etortzen ez zirelako. Dena den, ikasturtea hasi zenean, eta gaztelekua ireki zen lehen egunean, 15-18 urte bitarteko nerabeak ere etorri ziren gaztelekura eta beraz, bi lan ildo bereiztu behar dira nerabeen atalean: 12-15 urte bitarteko nerabeekin egin dena eta 15-18 urte bitartekoekin egin dena.

Egindakoa:**12-15 URTE:**

Nerabe hauekin azken urteetan gaztelekuan jarraitu den dinamikarekin jarraitu da, hau da, hileroko programazioak prestatu dira nerabeen interesetatik abiatuta, eta gero hezitzaileak beharrezkoa bazen materialak Tolosatik erosten zituen, baina ahal izan bada herrian bertan

nerabeekin egin dira erosketak, nerabeekin batera ekintza antolatu eta berriro dena txukundu denok batera.

Gaztelekuko ohiko eskaintzaz gain, gabonetan, aste santuetan eta udan ere eskaintza bereziaz gozatzeko aukera izan dute nerabeek. Eskaintza berezi hauetako jarduerak antolatzerakoan ere nerabeen ideiak jaso dira eta hauetatik abiatuta aukeratu dira ekintzak. Gabonetako zein aste santuko eskaintzak ikasturtean zehar egin diren hiru hilabeteko memorieta zehaztuta daude, eta jarraian, udako eskaintza zehaztuko da:

Ekainean zehar gaztelekuan paper bat izan zuten nerabeek beraien ideiak bertan idazteko, eta gero hezitzaileak ideia hauetatik abiatuta udako eskaintza antolatu zuen:



UDAKO ESKAINTZA NERABEAK 2017

<p>Ekainak 27 Frontenis txapelketa</p>  <p>10:30-12:30</p>	<p>Ekainak 28-29 Lo egitera irteera</p>  <p>Ekainak 28ko 17:00tik ekainak 29ko 17:00etara</p>	<p>Uztailak 3 Jai ball</p>  <p>15:30-20:15 *Alegiako tren geltokian elkartuko gara</p>	<p>Uztailak 4 Amezketako pilota txapelketako nerabeen semifinalak</p>  <p>10:30-12:30</p>	
<p>Uztailak 6 Beasaingo igerilekura</p>  <p>14:30-19:45 *Alegiako tren geltokian elkartuko gara</p>	<p>Uztailak 10 Kayakean Santa Clara irlara</p>  <p>15:00-19:45 *Tolosako zezen plazan elkartuko gara</p>	<p>Uztailak 11 Hi selfie! lehiaketa</p>  <p>10:30-12:30</p>	<p>Uztailak 13 Paintball</p>  <p>14:45-20:00 *Tolosako zezen plazan elkartuko gara</p>	<p>Uztailak 14 Ur jolasak</p>  <p>10:30-12:30</p>

Amezketako Haur eta Gazteen Sustapen arloa
Fernando Amezketarra enparantza 5, 20268 Amezketa  688711675



Ekintza hauek bateratuak izan dira 12-18 urte bitarteko nerabeentzat eta guztira 23 nerabek parte hartu dute. Datuak hurrengoak dira genero eta adin aldetik banatuta:

	12-15 URTE	15-18 URTE
NESKAK	5	4
MUTILAK	12	2



Azkenik, urtean zehar bestelako ekintzak ere izan dituzte adin honetako nerabeek, hala nola, korrika pasa zenean lekukoa kilometro batez eramateko aukera izan zuten, edota herriko pilota txapelketan aurten nerabeentzat kategoría berri bat sortu da.

15-18 URTE

Nerabe hauei aurreko ikasturtean proposatu zitzairen herriko hainbat ekintzetan modu aktiboan parte hartzen jarraitzea eta asteburu gauetan egoteko tokirik ez izatearren sumatzen zuten hutsunea betetzeko gaztelekuko bigarren pisua erabiltzen hastea. Ikasturte hartan erantzunik eman ez zuten arren, ikasturte honen hasieran etorri ziren eta berriro hasi zen planteamentu hortatik hasitako lanketa bat. Nerabe hauekin arau batzuk zehaztu ziren goiko lokalaren inguruan, eta urtean zehar burutuko zituzten konpromezu batzuk ere hartu zituzten. Konpromezu hauek haurrekin egiten diren ekintzen ingurukoak edota herrian egiten diren ekintza ezberdinen ingurukoak izan ziren. Urtean zehar egin diren ekintzak “2016ko Iraila-Abendua” eta “2017ko Urtarrila-Apirila” memorietan daude, baina azkenaldian egin diren ekintzak aipatuko dira jarraian:

-Festa batzordean parte hartu dute

-Zumadi eskolako ikasturte amaierako festan jolasak egin dituzte.

Honez gain, 12-15 urteko nerabeen azaldu den eskaintza bereziaz ere gozatzeko aukera izan dute.

Nerabeek zer diote?

Ikasturte honetan zehar nerabeei eta hauen gurasoei galdetegi bat pasa zitzairen gabonetako eskaintza bereziaren ondoren. Galdetegi hartako emaitzak 2017ko “Urtarrila-Apirila” memorian daude

Ikasturte amaieran beste galdetegi bat pasatzea zen helburua, baina ez da posible izan udako eskaintzan egin diren irteeren ondoren ez delako ekintzarik egin nerabeekin. Hala ere, beraiekin oso maiz hitz egiten du hezitzaileak eta orokorrean egiten dituzten balorazioak oso positiboak dira.

12-15 urteko nerabeek diote gustura daudela gaztelekuko zerbitzuarekin, eta egingo lituzketen aldaketen inguruan galdetu zaienean ez dute aldaketarik proposatu.

15-18 urteko nerabeekin aldiz buruntzunzin txabolan gaua pasaz egin zen aurtengo balorazioa eta hurrengo ikasturteko plangintza. Aurten aurrera eraman dugun dinamikaren inguruan galdetuta esan dute oso gustura egon direla eta etorkizunean beste batzuekin egiteko aukera suertatuko balitz dinamika egokia iruditu zaie.

**Balorazioa:**

HELBURUA	BALORAZIOA
12-14 urte bitarteko nerabeetan nesken parte hartzea igotzeko estrategiak bilatzea.	Erabiltzaile berrien sarrerarekin eta 15-18 urte bitarteko nerabeak gaztelekura itzultzearekin nesken parte hartzea egonkortu da.
Nerabeen iritzia jasotzeko galdetegiak pasatzea.	Gabonetako eskaintzaren ondoren galdetegia pasa zitzaien
Gurasoen iritzia jasotzeko galdetegiak pasatzea.	Gabonetako eskaintzaren ondoren galdetegia pasa zitzaien
12-14 urte bitartekoekin aurrera eramaten den dinamika indartzea.	Dinamika egonkortu da.
15-17 urte bitarteko nerabeen beharrak ezagutu eta hauei aukerak eskaintzen jarraitzea.	Dinamika berria martxan jarri da eta egonkortu da.
Orain arte ikusi da gaztelekura etortzeko ohitura adin tarte mugatu batek hartzen duela eta hauek egiten direla gaztelekuaren "jabe", nerabe gazteagoek etortzeko ohitura hartzen ez dutelarik. Gainera, 12-18 urte bitartean adin tarte oso handia da eta beraiek dituzten beharrak ere ezberdinak dira. Horregatik, hurrengo kurtsoan gaztelekuan sartuko diren nerabeak eta aurretik dauden erabiltzaileen artean bereizketa egin eta ordutegia adin tarteka banantzea aztertuko da: Ordutegi bat 12 urtekoenatzat eta beste bat 13-14	Ikasturtea hasi eta nerabeen arteko harremanak ikusi ondoren ondorioztatu zen ez zela beharrezkoa ordutegi banaketa egitea.



urtekoentzat.	
Gaztelekurako ordutegi berri bat planteatu.	Ordutegi berria jarri da martxan.

Aipatzekoa da 15-18 urte bitarteko nerabeen kasuan, haurren atalean egin diren jarduera guztietan lagundu dutela, eta herri mailan oso balorazio onak entzun direla nerabe hauei buruz. Gurasoak eta udala oso gustura daude ikasturtean zehar egin duten lanarekin eta hezitzaileak ere oso modu positiboan baloratzen du egin duten ahalegina.

DATORREN URTEAN...

Hurrengo ikasturtera begira ere bi adin tarte bereiztea aurreikusten da. Talde bat 12-16 urte bitartekoa izango da eta gaztelekuko ohiko dinamikarekin jarraituko du. Hala ere, posible da adin tarte honen barnean ere bereiztea gazteenen funtzionamendua zaharreneen funtzionamendutik.

Bestalde, 16-19 urte bitartekoek gazte talde bat sortzeko asmoa azaldu dute.

2016/2017 IKASTURTERAKO PROPOSAMENA : NERABEEN ATALA

- Erabiltzaile berriei ongietorria egin.
- Gaztelekuko ohiko dinamika egonkortu.
- Gabonetan, aste santuetan eta udan eskaintza bereziak antolatu.
- Herriko pilota txapelketa antolatu.
- Nerabeen behar berrietara egokitu.
- Herriko festetako programan nerabeen presentzia bultzatu.

**GAZTEEN ATALA:****18-30 urte bitartean****2016/2017. IKASTURTERAKO PROPOSAMENA: GAZTEEN ATALA**

Orain arte alor hau landu ez den arren, hurrengo urtean bi aspektu nagusi nabarmenduko dira: Gazte taldea eta begirale ikastaroa.

Gazte taldea:

Aurten goiko lokalaren dinamikaren barnean egon diren nerabeek adierazi dute egunerokotasunean gaztelekuak ez dituela asetzen beraien beharrak. Aipatzen duten gauza nabarmenenetako bat da gaztelekuo parte hartzaileen adin tartea oso zabala dela eta nerabe txikienekin jada ez direla eroso sentitzen. Honela, gazte talde bat sortzeko asmoa azaldu dute, eta aurten egin duten lan ona ikusita, udalak begi onez hartu du hau.

Gazte talde hau aurrera eramateko txosten bat prestatzen ari dira gazteak. Txosten horretan azaltzen dute zein motatako ekintzak egingo lituzketen eta baita horretarako beharko lituzketen baliabide material eta ekonomikoak ere. Txosten horretan adierazten dutena udalari ondo iruditzen bazaio, lokal bat utziko lieke taldearen funtzionamendua bermatzeko.

Begirale ikastaroa:

15-18 urte bitarteko nerabe hauetako batzuen interesetatik abiatu zen ideia hau ere. Begirale ikastaroa egitea gustatuko litzaiekeela esan zuten, eta aukera hau non eskaintzen duten aztertzen hasita, zizurkilgo egitasmoa ezagutu zuen hezitzaileak. Bertan, herrian eskaini dute begirale ikastaroa egiteko aukera, eta herriko hurrekin batera ekintzak eginez burutu dute ikastaroa. Modu honetan herriko adin ezberdinetako haur, nerabe zein gazteen arteko bizikidetzaz sustatzen dela eta herrian bertan ekintza gehiago egingo direla kontuan hartuta, aukera egokia iruditu zen Amezketarako.

Hainbat begirale eskolarekin harremanetan jarri ondoren, ikastaroa Aisiolarekin egitea erabaki zen. Ikasturte honetan, begirale ikastaroa eman ahal izateko eraikin bat homologatzeko pausuak eman dira, eta irailetik aurrera jarraituko da prozesuarekin.



3.- PSZko GARAPENA ETA BALORAZIO OROKORRA:

1. 0-30 URTE BITARTEKO HAUR, NERABE ETA GAZTEEI ARRETA ESKAINTZA JARRAIA

ALDERDI POSITIBOAK

- Haurren eskaintza egonkortuta dago eta hurrengo urteetara begira ere berdin jarraitzea aurreikusten da.
- Nerabeen atala ere oso ondo ari da funtzionatzen, parte hartzaile asko daude momentu honetan, eta kalean ibiltzen diren nerabe guztiak gaztelekura etortzen dira.
- Hezitzailea eta nerabeen arteko harremana oso ona da.
- Gaztelekua erreferente ari da bihurtzen herrian, gero eta ekintza gehiago eginez.

ERRONKAK

- Gazteen atala martxan jarri.
- Haurren atala orain arte bezala mantendu.
- Nerabeen atalean egunerokotasuneko dinamika indartu eta ekintza berriak sartu.

2. HAUR, NERABE ETA GAZTEEI ARRETA ESKAINTZEN DIETEN PROFESIONAL, HELDU ETA UDAL LANGILEEKIN KOORDINAZIO-SISTEMA

ALDERDI POSITIBOAK

- Hurrengo ikasturtean PSZ eta guraso elkartearen arteko elkarlana hasteko beharrezkoa zen lehen pausoa eman da.
- Zinegotziarekin bilerak sistematizatu dira.
- Koordinazioaren erregistroa egin da, hurrengo urtean hau sistematizatu ahal izateko.

ERRONKAK

- Guraso elkartearekin koordinazioa hasi eta finkatu.
- Zumadi eskolarekin bilerak sistematizatzea beharrezkoa den aztertu.



3. KOMUNITATEAREN ZATI, PARTAIDE ETA DINAMIZATZAILE IZAN NAHI DUEN ZERBITZUA:

ALDERDI POSITIBOAK

- Herriko beste hainbat eragile harremanetan jarri dira aurten gaztelekuarekin zenbait ekintzetan parte hartuko ote zuten jakiteko, beraz, herrian geroz eta erreferente garrantzitsuagoa da gaztelekua.
- 15-18 urte bitarteko nerabeek egin dituzten ekintzak gurasoek ikusi ahal izan dituzte, ekintza hauetako asko hurrekin erlazionatutakoak izan direlako. Modu honetan, gehiago baloratu da nerabeek ikasturtean zehar egin duten lana.

ERRONKAK

- Gaztelekua herriko erreferente garrantzitsu izateko pausoak ematen jarraitu.